

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Faltzes eta Erriberri Nafarroako Gobernuaren larrialdien kudeaketarako sisteman sartu dira

*Bi herrietako udaltzaingoak polizien komunikaziorako TETRA sistemara gehitu dira eta hala edozein ezbeharren aurrean modu arin eta koordinatuan erantzungo dute*

Asteartea, 2018.eko azaroak 13

Nafarroako Gobernuak eta Faltzes eta Erriberriko udalek larrialdi egoeretan herrietako udaltzaingoen eta Foruzaingoen arteko elkarlanaren kudeaketa jasotzen duen akordioa sinatu dute gaur goizean. Modu honetara, herrietako udaltzainak polizien komunikaziorako TETRA sistemara gehituko dira eta hala edozein ezbeharren aurrean modu arin, eraginkor eta koordinatuan erantzun ahal izango dute.



Kontseilariak Faltzeseko alkate, Valentín Garcia, eta gainontzeko ordezkariekin sinadura ekitaldian.

Bi polizien arteko koordinazioa eta elkarlana jasotzen duen akordioa gaur goizean sinatu dute, María Jose Beaumont, Lehendakaritza, Funtzio Publikoa, Barnea eta Justiziako kontseilariak, eta Valentín Garcia, Faltzeseko alkateak eta Andoni Lacarra, Erriberriko alkateak. Udaletxe bakoitzean egin den sinadura ekitaldian, kontseilariarekin batera izan dira Agustin Gastaminza, Barne Ataleko zuzendari orokorra, Toño Garcia Segurtasun Politiken Zerbitzuko zuzendaria, eta Alfredo Ondarra Segurtasunaren Koordinazio ataleko arduraduna.

Beaumont kontseilariak bi sinadura hauen gaineko poztasuna adierazi du: "Plazerra da niretzako Nafarroako Gobernuaren izenean elkarlanerako hitzarmen hau sinatzea Faltzes eta Oliteko udaletxeetan". Kontseilariak gainera hitzarmen honek, "gizartearen eskubide eta askatasunen babesean eragina izango du, segurtasun publikoaren bermean eta baita delikuentziaren kontrako borrokan ere", gehitu du.

Hitzarmen hauen bitartez bi herrien eta Foruzaingoen arteko koordinazioa gauzatu da. Horri esker, udaltzainak Nafarroako Gobernuaren TETRA teknologia digitaleko irati-sistemara gehitu dira eta bertatik poliziarentzako interesgarriak izan daitezkeen datuak eskuratu ahal izango dituzte. Modu honetara, beraien konpetentziako eremuko edozein ezbehar edo larrialdiren aurrean modu arin, eraginkor eta

koordinatuan erantzun ahal izango dute.

Halaber, Foruzaingoaren Informazio Sistemara (SIP) gehituko dira eta horren bitartez polizia ikerketetan garrantzitsua izan daitekeen informazioa eskuratuko dute. Azkenik, Salaketa Penalen Erregistro Sistema (SITRADE) ere erabili ahal izango dute. Guzti honekin Nafarroako Gobernuak aurrera egin du telekomunikazioen sare bakarra sortzeko helburuan eta baita polizientzako interesgarria den informazioaren erregistroan, poliziek errekurtsoak modu koordinatuan eta eraginkorrean eraibili ahal ditzaten.

### **27 Udaletxe**

Faltzes eta Erriberriko udaltzainekin batera sistema honekin bat egin dute Aranguren, Azagra, Bera, Cascante, Uharte, Valtierra, aguazilek eta Nafarroan udaltzaingoa duten udal guztiak: Altsasu, Ansoain, Barañain, Berriozar, Burlata, Castejón, Cintruenigo, Corella, Lizarra, Noain, Iruña, Azkoien, San Adrian, Zangoza, Tuter, Eguesibar, Atarrabia eta Zizur Nagusia. Guztira, jada, 27 dira bateratuak.



Kontseilaria, Erriberriko alkatea eta gainontzeko ordezkarien taldeko argazkia.